2.– Eskailera, arrapala, lur azpiko pasagune, metroko sarbide eta abarren kasuan, desnibelak, sakonuneak eta kota-aldaketak seinaleztatzeko, sarbide- eta heldura-alde guztietan 1 m-ko edo gehiagoko zabalera — baldosaren edo erabili beharreko materialaren moduluaren arabera — izango duten seinaleztapen-marrak ipiniko dira. Seinaleztapen-marra horietan zoladurak ehundura eta kolorazio desberdina izango du (inguruko gainetarako zoladurarekin ondo kontrastatuta) eta, horrela, informazioa eta abisua emateko funtzio bikoitza beteko du. Bidearen noranzkoarekin elkarzut geratuko dira eta oinezkoentzako ibilbide osoa hartuko dute, komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. Eranskinean adierazitakoari jarraiki.

3.– Oinezkoentzako ibilbide baten diseinuan irtene edo kolore desberdineko zoladurak jartzen direnean, diseinu horretarako jarraibide orokor gisa ondokoak hartuko dira:

1.a Oinezkoentzako ibilbidearen zatirik handiena barne hartuko duen zoladura bat nagusi moduan uztea.

2.a Zoladuraren gainerakoa ibilbidearen ardatzean uztea, ikusteko arazoak dituzten pertsonak zuzentzeko eta orientatzeko gida moduan baliagarria izan dadin.

4.– Oinezkoentzako ibilbide eta pasaguneetan kokatutako burdinsareak eta erregistroak inguruko zoladurarekin berdinduta egongo dira eta material irristakaitzekoak izango dira (bai eta bustita daudenean ere).

– La pendiente longitudinal será menor o igual al 6%.

– La pendiente transversal será como máximo de 2%, recomendándose 1.5%.

– La altura máxima de los bordillos en caso de aceras será de 12 cm., recomendándose de canto redondeado con un radio máximo de 1 cm. o bien, achaflanado de 2 cm.

3.– Excepcionalmente, cuando en la construcción de itinerarios peatonales aparezcan contradicciones con la normativa urbanística o sectorial concurrente en el área o sean de difícil materialización, por razón de la topografía del terreno, todas las especificaciones antes señaladas, se adoptaran las medidas que mejor garanticen la accesibilidad. En estos casos, será necesario justificar la solución adoptada en un informe de los Servicios Municipales previo a la concesión de la licencia. Para el conocimiento del Consejo Vasco de Accesibilidad, se le dará traslado de estos expedientes.

(ver figura n.º 1)

3.3.– Pavimentos.

1.– Los pavimentos duros de los itinerarios peatonales serán antideslizantes y sin resaltes entre piezas, y los pavimentos blandos suficientemente compactados para impedir el desplazamiento y el hundimiento de las sillas de ruedas, bastones etc. Las características mencionadas serán definidas por Orden del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente.

2.– Para señalar desniveles, depresiones y cambios de cota, como en el caso de escaleras, rampas, pasos subterráneos, bocas de metro, etc. se colocarán Franjas Señalizadoras que serán mayor o igual a 1m., en función del modulo de la baldosa o material a emplear, de anchura en todos los frentes de acceso y llegada. Dichas Franjas Señalizadoras serán, pavimentos de textura y coloración diferentes, bien contrastado con el resto del pavimento circundante, cumpliendo una doble función de información y/o aviso. Se situarán quedando perpendiculares al sentido de la marcha y ocuparán la totalidad del itinerario peatonal, conforme a lo indicado en el Anejo IV, sobre Accesibilidad en la Comunicación.

3.– Cuando en el diseño de un itinerario peatonal, se coloquen pavimentos de diferentes formas de resaltes o colores, se tomará como pauta general para dicho diseño lo siguiente:

1.º Dejar un pavimento como predominante, que abarque la mayor parte del itinerario peatonal.

2.º Dejar en el eje del itinerario el resto del pavimento, con la finalidad de que sirva como guía de dirección y de orientación a las personas con problemas visuales.

4.– Las rejas y registros situados en los itinerarios y pasos peatonales estarán enrasados con el pavimento circundante y serán de material antideslizante aún en mojado, impedirán el tropiezo de las personas que utili-

Gainera, makilak edo gurpil-aukiak erabiltzen dituzten pertsonak bertan ez behaztopatzeko moduan egingo dira, koadrikulatuak izango dira eta 1 x 1 cm-ko gehieneko irekidura izango dute oinezkoentzako ibilbidearen gutxieneko zabalera badaude eta 2,5 x 2,5 cm-koa zabalera horretan ez badaude.

5.- Oinezkoentzako ibilbide hauetan kokatuta dauden zuhaitzen txorkoa inguruko zoladurarekin berdindutako elementuekin estaliko da. Elementu hauek lasaierarik gabe ipiniko dira, pertsonak edo ibilgailuak gaineratik igarotzearen eraginez ez deformatzeko moduan. Burdinsare-itxiturarik izanez gero, aurreko paragrafoak bezalakoak izango dira.

(ikus 2. eta 3. irudiak)

3.4.- Ibilgailuentzako ibiak.

1.- Zeharkatzen dituzten oinezkoentzako ibilbideak, arau hauetan (3.2 atalean) onartutakoak baino luzetarako eta zeharkako aldapa handiagorik ez izateko moduan diseinatuko dira.

2.- Galtzadatik aparkaleku edo garajera dagoen distantziaren edota bien arteko desnibelaren ondorioz adierazitako moduan diseinatu ezin badira, 1,50 m-ko gutxieneko espaloi-zabalera bat geratzeko moduan (eranskin honen 3.2 atalean onartutako aldapekin) formalizatuko dira.

3.- Espaloi 1,50 m-koa izanik ibia egin ezin bada, zintarria beheratu egingo da.

(ikus 4. eta 5. irudiak)

3.5.- Oinezkoentzako pasaguneak.

1.- Pertsonak igarotzeko erreserbatutako galtzadetakako espazioei deituko diegu oinezkoentzako pasagune.

2.- Oinezkoentzako ibilbidean pasagune hauek «seinaleztapen-marra» bidez seinaleztatuko dira. Marra horrek 1 m-ko edo gehiagoko zabalera izango du -erabili beharreko baldosa edo zoladuraren tamainaren arabera- eta oinezkoentzako pasagunearen ardatzean ipiniko da.

3.- Pasagunea bertikalki (argizko seinalea), horizontalki (soinu-bandak) edo kolore bidez (banda txuri eta gorriak) seinaleztatzea gomendatzen da, gurutzagune arriskutsuko pasaguneetan eta/edo pasagune altuetan batez ere.

4.- Oinezkoentzako ibilbide edo espaloien eta galtzadaren artean desnibela dagoenean, ondoko ezaugarriak izango dituzten oinezkoentzako ibiak jarriko dira:

1.a Gehienez ere %8 eta %1,5ekoak izango diren luzetarako eta zeharkako aldapak -hurrenez hurren- izango dituzten plano inklinatu bidez formalizatuko dira. Horrela, ibiak eraginpean hartu gabeko 1,50 m-ko espaloi-zabalera bat geratuko da gutxienez.

2.a Beren zabalera, galtzadaren kotan, oinezkoentzako pasagunearena izango da gutxienez.

cent bastones o sillas de ruedas, serán en cuadrícula y tendrán unas aperturas máximas de 1 x 1 cms. si invaden el ancho mínimo del itinerario peatonal y de 2,5 x 2,5 cms. en caso contrario.

5.- Los árboles que se sitúen en estos itinerarios peatonales tendrán cubiertos los alcorques con elementos enrasados con el pavimento circundante, colocados sin holguras, que no sean deformables bajo la acción de pisadas o rodadura de vehículos, si son enrejados serán como en el párrafo anterior.

(ver figuras n.º 2 y 3)

3.4.- Vados de vehículos.

1.- Se diseñarán de forma que los itinerarios peatonales que atraviesen no queden afectados por pendientes longitudinales y transversales superiores a las toleradas en las presentes normas, apartado 3.2.

2.- Cuando por la distancia de la calzada al aparcamiento o garaje o por el desnivel entre ambos no pueda diseñarse de la forma indicada se formalizará de manera que quede un ancho de acera mínimo de 1,50 m., con las pendientes admitidas en el apartado 3.2 de este Anejo.

3.- En el caso de que la acera sea de 1.50 m. no pudiéndose realizar el vado, se resolverá rebajando el bordillo.

(ver figuras n.º 4 y 5)

3.5.- Pasos de peatones.

1.- Denominaremos pasos de peatones, a los espacios de las calzadas reservadas al paso de personas.

2.- Su señalización en el itinerario peatonal será por medio de «Franja Señalizadora», igual o mayor a 1m. de anchura, en función del tamaño de la baldosa o pavimento a emplear, colocada a eje del paso de peatones.

3.- Se recomienda la señalización del paso, tanto en vertical (señal luminosa), como en horizontal (bandas sonoras) o de coloración (bandas blancas y rojas), sobre todo en pasos de cruce peligroso y/o elevados.

4.- Cuando exista desnivel entre los itinerarios peatonales o aceras y la calzada se salvarán mediante la incorporación de vados peatonales de las siguientes características :

1.º Se formalizará mediante planos inclinados con pendientes longitudinales y transversales nunca superiores al 8% y al 1,5%, respectivamente, quedando como mínimo un ancho de acera de 1,50 m., no afectado por el vado.

2.º Su anchura, a cota de calzada, será como mínimo la del paso de peatones.

3.a Oinezkoentzako ibi osoaren zoladura, bere perimetro osoan metro bat zabaldua, seinaleztapen-marraren berdina izango da komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. Eranskinean adierazitakoari jarraiki.

5.- Ahal den guztietan, oinezkoa zirkulaziorako erreira hurbilduko duten oinezkoentzako ibiak egingo dira. Horrela, ibia aparkatzeko eremua hartuta egingo da, ibilgailuen zirkulazioa kaltetu gabe. Ibi hauek bereziki egokiak dira kaleen gurutzaguneetan egiteko.

6.- Aurreko ezaugarriak izango dituen ibi bat formalizatzeko behar adinako espaziorik ez duten espaloi estuetan, espaloia galtzadaren kotara behearatu da oinezkoentzako pasagunearen zabalera osoan (kota hori galtzadak eta zintarriak topo egiten duteneko izanik) espaloia luzetarako plano inklinatu bidez. Luzetarako aldapa gehienez ere %8koa izango da eta zeharkakoa berriz, %1,5koa.

7.- Nolanahi ere, oinezkoentzako ibilbidetik galtzadara igarotzea errazteaz gain zirkulazioaren abiadura murriztu nahi bada, galtzadaren kota espaloia kotaraino igo ahal izango da oinezkoentzako pasaguneen zabalera osoan. Era berean, uren hustuketa eta ikusmen-urritasuna duten pertsonen galtzadaren hasiera ezagutzea ahalbidetuko dien ehundura-bereizketa modu egoki batean ebatziko dira.

8.- Desnibelik ez dagoenean, pasagunea ibilgailuek ez aparkatzeko moduan egingo da.

9.- Oinezkoek pasagunean egin beharreko tartean ibilgailuentzako galtzaden erdiko irlatxo bat zeharkatu behar bada, irlatxo hau galtzaden maila berean egongo da (oinekoentzako pasagunearen zabalera berdinarekin) eta bere zoladura ibiarena bezalako izango da.

10.- Irlatxoa bi noranzko eta hiru errei edo gehiagoko bideetan badago, 2,00 m-ko gutxieneko hondo izango du mugikortasun urria duen pertsona bati ibilgailuen zirkulaziotik babestuta egotea ahalbidetzeko.

11.- Oinezkoen pasaera erregulatzeko semafororik izanez gero, honek soinuak seinalea izango du komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. Eranskinean adierazitakoari jarraiki.

12.- Oinezkoentzako pasagunearen berriazko seinaleztapenari dagokionez, seinaleztapen-marraren zoladura protuberantzia edo erroak izango dituzten baldosen edo bestelako materialen bidez egingo da, 25 mm-ko diametroa, 6 mm-ko altuera eta beren erdiguneen arteko 67 mm-ko bereizketa izango dutenak hain zuzen ere. Baldosa horiek irristakaitzak eta kolorez kontrastatuak izango dira eta ezaugarri hauek gordetzeko behar bezala mantenduko dira.

13.- Oinezkoentzako pasaguneetan material labainkorra erabiltzea saihestuko da.

(ikus 6., 7. eta 8. irudiak)

3.º El pavimento en todo el vado peatonal, ampliado en un metro de anchura en todo su perímetro, será igual que la Franja Señalizadora, conforme a lo indicado en el Anejo IV, sobre Accesibilidad en la Comunicación.

5.- Siempre que sea posible, se ejecutarán vados peatonales que acerquen al peatón al carril de circulación de tal manera que se realice el vado invadiendo la zona de aparcamiento, sin afectar a la circulación de vehículos. Este tipo de vados es especialmente indicado para su realización en los cruces de calles.

6.- En aceras estrechas, donde no se dispone de espacio suficiente para la formalización de un vado de las características anteriores, se rebajará la acera a la cota de la calzada, entendiéndose esta cota como la de encuentro entre calzada y bordillo, en todo el ancho del paso peatonal, mediante planos inclinados en el sentido longitudinal de la acera y con pendiente no superior al 8% y transversales de 1,5%.

7.- En cualquier caso, si además de facilitar la transición del itinerario peatonal a la calzada se quiere reducir la velocidad de circulación, se puede recurrir a elevar la cota de la calzada hasta la cota de la acera, en todo el ancho del paso de peatones, resolviéndose de forma apropiada la evacuación de aguas y la diferenciación de textura que permita a las personas deficientes visuales detectar el comienzo de la calzada.

8.- Cuando no existan desniveles, se protegerá el paso contra el aparcamiento de vehículos.

9.- Si en el recorrido del paso de peatones es preciso atravesar una isleta intermedia a las calzadas rodadas, ésta se encontrará al mismo nivel de las calzadas, en un ancho igual al del paso de peatones y su pavimento será igual al del vado.

10.- Si la isleta se encuentra en viales de doble sentido y con tres o más carriles tendrá un fondo mínimo de 2,00 metros, que permita a una persona con movilidad reducida permanecer a resguardo de la circulación rodada.

11.- En el caso de existir semáforo para regular el paso de peatones, éste dispondrá de señal sonora, conforme a lo indicado en el Anejo IV, sobre Accesibilidad en la Comunicación.

12.- En la señalización específica del paso de peatones el pavimento de la franja señalizadora, se ejecutará mediante baldosas u otro tipo de material con protuberancias o tetones de 25 mm. de diámetro, 6 mm. de altura y 67 mm. de separación entre sus centros o solución similar. Dichas baldosas serán antideslizantes, contrastadas de color y se mantendrán adecuadamente para conservar estas características.

13.- Se evitará la utilización de material deslizante en pasos de peatones.

(ver figuras n.º 6, 7 y 8)

3.6.- Parkeak, lorategiak, plazak eta espazio libre publikoak.

1.- Parkeek, lorategiek, plazek eta espazio libre publikoek eranskin honen irizpideei egokituta egon beharko dute.

2.- 2,00 m-ko gutxieneko zabalera izango duten bide edo bidexkak antolatuko dira, ezin deformatuzko eta material irristakaitzez zolatuak eta ehundura desberdina eta gainerako zoladurarekin ondo kontrastatua izango dutenak. Horretarako harri, lur, soropil eta abarren ehundurak aprobetxatuko dira.

3.- Desnibel guztiak oinezkoentzako ibilbideen bidez (eranskin honen 3.2 puntuaren arabera) edo 3.8 puntuan jasotako ezaugarriak dituzten arrapalen bidez gaudituko dira. Osagarri gisa, eskailerak jarri ahal izango dira.

4.- Plataforma altuetan edo 40 cm-tik gorako desnibetan (hala nola terrazetan, jolas-eremuetan eta abar) beharrezkoak diren babes-elementu etengabeak ipiniko dira.

5.- Zuhaitz landatuen adarrak edo enbor okerrak ez dira oinezkoentzako ibilbideetara iritsiko 2,20 m-tik beherako altueran.

6.- Hiri-altzariak —hala nola iturriak, ur-zirriztak eta abar— oinezkoentzako ibilbidean zehar lerrotatuta antolatzea gomendatzen da, era honetan, beren sonoritatea kontuan hartuta, ikusmen-urritasuna duten pertsonen orientazioa eta desplazamendua erraz daitezten. Halaber, eranskin honen 4. artikuluko («Hiri-altzariak») zehazpenak betetzea gomendatzen da.

7.- Ukipen-planoak edo ukipen/soinuzkoak jarriko dira komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. eranskinean ezartzen diren ezaugarriekin eta bertan ezarritako espazio libre publikoetan.

(ikus 9. irudia)

3.7.- Eskailerak.

1.- Eskaileren diseinuak eta trazadurak mugikortasun urria duten pertsonen erabilera publikoko espazio libreetarako irisgarritasuna ahalbidetu beharko diete eta ondoko parametroei lotuko zaizkie:

2.- Eskailerak zuzentzaile zuzenekoak izango dira. Mailagainaren dimentsioa ezein puntutan 35 cm-tik beherakoa ez denean, «abaniko» gisakoak baimenduko dira.

3.- Gutxieneko zabalera librea 2,00 m-koa izango da.

4.- Eskailera guztiak bi alboetarako eskubanda bi-koitz batez hornituko dira, 3.10 puntuan adierazi bezala. Eskaileraren zabalera 2,40 m-tik gorakoa bada, horrez gain bitarteko eskubandak jarriko dira. Alboetako eskubandak eskailburuen (bai eta bitartekoak ere) ibilbidearen ahalik eta zatirik handiengan luzatuko dira.

3.6.- Parques, jardines, plazas y espacios libres públicos.

1.- Los parques, jardines, plazas y espacios libres públicos deberán ajustarse a los criterios del presente anejo.

2.- Se dispondrán caminos o sendas de una anchura mínima de 2,00 m. pavimentados con material indeformable y antideslizante, de textura diferente y bien contrastada del resto, aprovechando las texturas de piedras, tierra, césped, etc.

3.- Todos los desniveles se salvarán mediante itinerarios peatonales, según el punto 3.2 de este Anejo o rampas cuyas características se recogen en el punto 3.8, pudiéndose instalar escaleras de forma complementaria.

4.- En las plataformas elevadas o en desniveles superiores a 40 cm. como el caso de terrazas, zonas de juegos, etc. se colocarán elementos continuos de protección necesarios.

5.- Las plantaciones de árboles no invadirán los itinerarios peatonales, con ramas o troncos inclinados, en alturas inferiores a 2,20 m.

6.- Se recomienda que los elementos del mobiliario urbano, como por ejemplo las fuentes, surtidores, etc. se dispongan alineados a lo largo del recorrido peatonal para favorecer por su sonoridad la orientación y el desplazamiento de las personas con deficiencias visuales y que cumplan con las especificaciones del artículo 4 -Mobiliario Urbano- del presente Anejo.

7.- Se dispondrán planos táctiles o táctilo-sonoros con las características y en los espacios libres públicos, que se establezca en el Anejo IV, sobre Accesibilidad en la Comunicación.

(ver figura n.º 9)

3.7.- Escaleras.

1.- El diseño y trazado de las escaleras deberá permitir la accesibilidad a personas con movilidad reducida a los espacios libres de uso público y se ajustarán a los siguientes parámetros:

2.- Las escaleras serán de directriz recta, permitiéndose las de abanico cuando la dimensión de la huella no sea inferior a 35 cm, en ningún punto.

3.- La anchura libre mínima será de 2,00 m.

4.- Todas las escaleras se dotarán de doble pasamanos a ambos lados, según se señala en el punto 3.10. Cuando la anchura de la escalera supere los 2,40 m. se dispondrán, además, pasamanos intermedios. Se prolongarán los pasamanos laterales en todo el recorrido posible de los rellanos y de las mesetas intermedias.

5.- Mailagaina material irristakaitzez egingo da, kontramailan irtenunerik utzi gabe. Bere gutxieneko dimentsioa 35 cm-koa izango da.

6.- Kontramailak 15 cm-ko gehieneko dimentsioa izango du.

7.- Eskailera-atal bakoitzeko maila-kopurua 3koa izango da gutxienez eta 12koa gehienez. Mailak ezin- go dira gainjarri.

8.- Mailen ertz libreak 3 cm-ko irtenune batez babestuta egongo dira.

9.- Eskaileraren atalik baxuenaren arkubarnera gutxienez 2,20 m-ko altuera bateraino itxi beharko da.

10.- Bitarteko eskailburuek 1,50 m-ko luzera izan- go dute gutxienez.

11.- Eskaileren mailetan eta eskailburuetan urik ge- ra ez dadin, ura husteko aldapa %1,5ekoa izango da ge- hienez ere.

12.- Eskailerapeko argi librearen gutxieneko altue- ra 2,20 m-koa izango da.

13.- Eskaileretarako sarbideetan ukipen-seinaleak jarriko dira, komunikaziorako irisgarritasunari buruz- ko IV. Eranskinean ezarritako ezaugarriekin.

14.- Kontramailarik gabeko eskailerak debekatuta daude.

15.- Ahal den neurrian, distirak eta itsualdiak sor- tzen dituzten mailen zoladurak saihestuko dira.

16.- Mailen ertzetan, beren luzera osoan eta maila- gainean sartuta, banda txiki batzuk ipiniko dira, irris- takaitzak (lehorrean nahiz bustian). Banda hauek 5 cm- tik 10era bitarteko zabalera izango dute, ehundura eta kolorazio desberdinekoak izango dira eta mailaren gai- nerako zoladurarekin ondo kontrastatuta egongo dira.

17.- Ibilbideetan «seinaleztapen-marra» bidez sei- naleztatuko dira, komunikaziorako irisgarritasunari bu- ruzko IV. Eranskinean definitu bezala.

(ikus 10. irudia)

3.8.- Arrapalak.

Arrapalen diseinuak eta trazadurak, oinezkoentzako ibilbideenak baino desnibel eta aldapa handiagoak gain- ditzea ahalbidetuko dute. Ondoko parametroak hartu beharko dira kontuan:

- Gutxieneko zabalera 2 m-koa izango da.

- Baimendutako gehieneko aldapa %8koa izango da.

- Gehieneko zeharkako aldapa %1,5ekoa izango da.

- Eskailbururik gabeko atalaren gehieneko luzera 10 m-koa izango da.

- Bitarteko eskailburuek 2 m-ko gutxieneko luzera izango dute eta arrapalarako sarbideetan 1,80 m-ko dia- metroko zirkulu bat egitea ahalbidetuko duten azale- rak jarriko dira.

5.- La huella se construirá en material antideslizan- te, sin resaltes sobre la contrahuella y tendrá una di- mensión mínima de 35 cm.

6.- La contrahuella tendrá una dimensión máxima de 15 cm.

7.- El número de peldaños por tramo será como mí- nimo de 3 y como máximo de 12. Los peldaños no po- drán solaparse.

8.- Los extremos libres de los escalones estarán pro- tegidos con un resalte de 3 cms.

9.- El intradós del tramo mas bajo de la escalera se ha de cerrar hasta una altura mínima de 2,20 m.

10.- Los descansillos intermedios tendrán una lon- gitud mínima de 1,50 m.

11.- Para evitar la permanencia de agua en pelda- ños y rellanos de las escaleras, las pendientes para la e- vacuación de la misma será como máximo 1,5%.

12.- La altura mínima de luz libre bajo escalera se- rá de 2,20 m.

13.- Se dispondrá de señalización táctil en los acce- sos a las escaleras con las características establecidas en el Anejo IV, sobre Accesibilidad en la Comunicación.

14.- Se prohíben las escaleras sin contrahuellas.

15.- Se procurará evitar los pavimentos de los esca- lones que produzcan destellos o deslumbramientos.

16.- En los bordes de los escalones se colocarán en toda su longitud y empotradas en la huella unas peque- ñas bandas, antideslizantes, tanto en seco como en mo- jado. Estas serán de anchura entre 5 y 10 cm., de tex- tura y coloración diferentes y bien contrastadas con el resto del pavimento del escalón.

17.- Su señalización en los itinerarios será median- te «Franja Señalizadora» como se define en el Anejo IV, sobre Accesibilidad en la Comunicación.

(ver figura n.º 10)

3.8.- Rampas.

El diseño y trazado de las rampas permitirá salvar desniveles y pendientes superiores a las del itinerario peatonal. Debiendo tener presentes los siguientes pa- rámetros:

- La anchura mínima será de 2 m.

- La pendiente máxima permitida será del 8%.

- La pendiente transversal máxima será del 1,5%.

- La longitud máxima del tramo sin rellanos será de 10 m.

- Los rellanos intermedios tendrán una longitud mí- nima de 2 m. y en los accesos a la rampa se dispondrá de superficies que permitan inscribir un círculo de 1,80 m. de diámetro.

– Bi alboetan eskubandaz hornituko dira eta beren ezaugarriak eranskin honen 3.10 puntuan adierazitakoak izango dira.

– Arrapaletako alboak zintarri irten batzuekin edo gutxienez 5 cm-ko (arrapalaren zoladuraren akaberatik neurtuta) alboko babes baten bidez babestuko dira makilak eta gurpilak ibilbidean zehar ustekabean atera ez daitezten.

– Zoladura irristakaitza izango da.

– Ibilbideetan «seinaleztapen-marra» bidez seinalez-tatuko dira, komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. Eranskinean adierazi bezala.

(ikus 11. irudia)

3.9.– Eskailera mekanikoak, tapiz pirikariak eta igogailuak.

Espazio libre publikoetan eskailera mekanikoak, tapiz pirikariak edo igogailuak instalatzen direnean, irisgarritasunari eta seinaleztapenari dagokienez eranskin honetako arauei egokituko zaizkie eta eraikuntzari dagokionez berriz, III. Eranskineko («Eraikinetako irisgarritasun-baldintza teknikoak») arauei.

3.10.– Eskubandak.

1.– Eskubandak lekualdatzeko edo jarrera jakin batean egoteko laguntza gisa jartzen diren euskarri-elementuak dira.

2.– Eskubandak diseinatu eta jartzean kontuan hartu beharreko ezaugarri nagusiak ondokoak dira:

– Diseinua anatomikoa izango da eta eskuari egokitzeko moduko forma izango du. 4 cm-tik 5era bitarteko diametroko sekzio zirkularra gomendatzen da.

– Finkapena, eskubandaren behealdean, irmoa izango da eta ez du heltzeko oztoporik izango. Horrela, beste edozein elementurekin gutxienez 4 cm-ko distantzia batera bereizita egongo da behealdean (plano horizontalean neurtua) eta edozein oztoporekiko gutxienez 10 cm-ra goialdean (plano bertikalean neurtua).

– Ez dira inon txertatuta ipiniko.

– Eskubandak bikoitzak izango dira eta, eskaileren kasuan, goikoa bozeletik 100+5 cm-ko altuera batean eta behekoa 70+5 cm-ko altuera batean ipiniko dira.

– Eskailera-atal eta arrapalen hasiera eta amaiera eskuz antzemateko adierazle gisa, eskubandak 45 cm-tan luzatuko dira beren ertzetan, betiere lehentasuna duten oinezkoentzako ibilbideen zeharkako inbasiorik gertatzen ez bada. Horrela, eskailera-atal edo arrapala osoan estaldura bermatuko da.

– Krokadurak saihesteko moduan errematatuko dira.

– Beren koloreak kontrastea egingo du arrapalen eta eskaileren gainerako elementuekin.

– Se dotarán de pasamanos, en ambos laterales; y sus características son las que se señalan en el punto 3.10 de este Anejo.

– Los laterales de las rampas se protegerán con bordillos resaltados o protección lateral de 5 cm. como mínimo medido desde el acabado del pavimento de la rampa, para evitar las salidas accidentales de bastones y ruedas a lo largo de su recorrido.

– El pavimento será antideslizante.

– Su señalización en los itinerarios será mediante «Franja Señalizadora» como se define en el Anejo IV, sobre Accesibilidad en la Comunicación.

(ver figura n.º 11)

3.9.– Escaleras mecánicas, tapices rodantes y ascensores.

Cuando en los espacios libres públicos se instalen escaleras mecánicas, tapices rodantes o ascensores, se ajustarán en cuanto a la accesibilidad y señalización, a las normas del presente Anejo y en cuanto a su construcción a las normas del Anejo III Condiciones Técnicas de Accesibilidad en los Edificios.

3.10.– Pasamanos.

1.– Los pasamanos son aquellos elementos de soporte que se disponen como ayuda para desplazarse o para mantener una determinada postura.

2.– Las principales características a tener en cuenta en el diseño y disposición de los pasamanos son las siguientes:

– El diseño será anatómico con una forma que permita adaptarse a la mano, recomendándose una sección circular equivalente entre 4 y 5 cm. de diámetro.

– La fijación será firme por la parte inferior del pasamanos, sin obstáculos para asirlo por lo que estará separado como mínimo 4 cm. respecto a cualquier otro elemento en la parte interior medido en el plano horizontal y 10 cm. como mínimo de separación con cualquier obstáculo por encima medido en el plano vertical.

– No se colocará encastrado.

– Los pasamanos serán dobles y se colocarán a una altura, desde el bocel en el caso de escaleras, de 100 5 cm. el superior, y de 705 cm. el inferior.

– Los pasamanos se prolongarán 45cm. en los extremos de los tramos de escaleras y rampas, como indicación de percepción manual que advierta del comienzo y final de los mismos, siempre y cuando no se produzcan invasiones transversales de itinerarios peatonales prioritarios, garantizando la cobertura de todo el tramo de escalera o rampa.

– Estarán rematados de forma que eviten los enganches.

– Su color será contrastado con el resto de los elementos de rampas y escaleras.

Eskaileretako eta arrapaletako eskubandetan orientazio-plakak ipiniko dira komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. Eranskinean ezarritako ezaugarriekin eta bertan ezarritako eraikinetan.

(ikus 12. irudia)

3.11.- Aparkalekuak.

1.- Eraikuntzarik gabeko bide edo espazioetan kokatutako ibilgailuak aparkatzeko eremu gutzietan, 40 plazako edo zatikiko gutxienez plaza bat egongo da etengabe erreserbatuta mugikortasun urria duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat.

2.- Erreserbatutako plaza hauek oinezkoentzako ibilbideetatik eta inguruko eraikin eta zerbitzu publikoetarako sarbideetatik hurbil kokatuko dira eta irisgarritasunaren nazioarteko sinboloarekin seinalatzatuko dira, ondo ikusteko moduan eta plano bertikalean zein horizontalean. Horrez gain, gainerako ibilgailuak aparkatzeko debekua ere seinalatzatuko da.

3.- Seinalaztapen horizontalak irristakaitza izan behar du.

4.- Bide publikoetan kokatutako ibilgailuak aparkatzeko eremuetan, erreserba egingo den moduan erreserbatutako bi plazaren artean oinezkoentzako ibilbidearen tarte ez da 250 m-tik gorakoa izango.

5.- Gurpil-aulkiaren erabiltzailea erreserbatutako aparkaleku-plazatik oinezkoentzako ibilbidera edo espaloiara joateko aukera bermatuko da. Erabiltzaileentzako arrisku-egoerak saihestuko dira eta erreserba oinezkoentzako pasaguneen alboan jartzea sustatuko da.

6.- Aparkaleku-erreserba oinezkoentzako pasaguneetatik hurbil egiten bada, oinezkoentzako pasaguneetik erreserbatutako plazara edo plazetara 2 m-ko distantzia utziko da oztoporik eta aparkalekurik gabe, era honetan erreserbatutako plaza erabiliko duen pertsonak oinezkoentzako pasagunearen ikus-kontrol zabalagoa izan dezan.

(ikus 13. irudia)

7.- Erreserbatutako plazen gutxieneko dimentsioak, oro har, ondokoak izango dira: 6,00 m-ko luzera eta 3,60 m-ko zabalera.

8.- Zeharkako aparkalekuetan, ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioan zailtasunak izategatik 6,00 m-ko luzera hartzea ezinezkoa denean, 5 m-ra murriztu ahal izango da. Plazaren zabalera berriz, ezingo da adierazitakoa baino txikiagoa izan.

9.- Luzetarako aparkalekuetan, ibilgailuen zirkulazioan zailtasunak izategatik 3,60 m-ko zabalera hartzea ezinezkoa denean, gainerako plazetarako dagoen zabalera hartuko da. Plazaren luzera berriz, ezingo da adierazitakoa baino txikiagoa izan. Kasu hauetan, oinezkoentzako pasabideen alboan jarriko dira.

10.- Erreserbatutako plazak erabili ahal izateko, erreserbarako eskubidea egiaztatu behar du Administrazio honek edo arlo honetan eskumena duen beste batek emandako dokumentu edo txartel baten bidez.

Se dispondrán Placas de Orientación en los pasamanos de escaleras y rampas de las características y en los edificios que se establezca en el Anejo IV, sobre Accesibilidad en la comunicación.

(ver figura n.º 12)

3.11.- Aparcamientos.

1.- En todas las zonas de estacionamiento de vehículos ligeros situadas en vías o espacios libres de edificación, se reservarán permanentemente como mínimo una plaza por cada 40 ó fracción para vehículos que transporten personas con movilidad reducida.

2.- Estas plazas reservadas se situarán cerca de los itinerarios peatonales y de los accesos a edificios y servicios públicos de la zona y se señalarán de forma bien visibles, con el símbolo internacional de accesibilidad tanto en el plano vertical como en el horizontal. Además se señalará también la prohibición de aparcar para el resto de los vehículos.

3.- La señalización en horizontal deberá ser antideslizante.

4.- En las zonas de estacionamiento de vehículos situados en las vías públicas la reserva se ejecutará de forma que entre dos plazas reservadas el recorrido por un itinerario peatonal no supere los 250 m.

5.- Se garantizará la incorporación del usuario de silla de ruedas de la plaza reservada del aparcamiento al itinerario peatonal o acera, evitándose situaciones de riesgo para los usuarios y potenciándose la colocación de la reserva colindante a los pasos de peatones.

6.- En el caso de que se realice la reserva de aparcamiento próxima a los pasos peatonales, se dejará libre de obstáculos y de aparcamiento una distancia de 2 m. desde el paso de peatones a la plaza o plazas reservadas, con el fin de ampliar el control visual del paso de peatones a la persona que pueda hacer uso de la plaza reservada.

(ver figura n.º 13)

7.- Las dimensiones mínimas de las plazas reservadas serán en general de 6,00 m. de largo por 3,60 m. de ancho.

8.- En aparcamientos en batería cuando por razones de dificultades en la circulación rodada o peatonal no sea posible adoptar el largo de 6,00 m. se podrá reducir hasta 5,00 m. no siendo el ancho de la plaza reservada menor de la indicada.

9.- En aparcamientos en línea cuando por razones de dificultades en la circulación rodada no sea posible adoptar la anchura de 3,60 m. se ajustará a la existente para el resto de las plazas no siendo el largo de la plaza reservada menor de la indicada, en estos casos se colocarán colindantes a los pasos de peatones.

10.- Para hacer uso de las plazas reservadas será necesario acreditar el derecho a la reserva mediante documento o tarjeta otorgada por esta Administración u otra con competencia en la materia.

3.12.- Komun publikoak.

1.- Eraikuntzarik gabeko espazioetan komun publiko bakanak instalatzen direnean, mugikortasun urria duten pertsonak autonomiaz erabiltzeko modukoak izango dira. Elementu-talde bat izanez gero, 10 elementuko edo zatikiko bat erreserbatuko da sexu bakoitzarentzat. Ondoko ezaugarriak bete beharko dira:

2.- Komunak banatzera destinatutako espazioetan 1,80 m-ko diametroa izango duen oztoporik gabeko zirkulu bat egin ahal izango da.

3.- Banaketara destinatutako espazioetan zein komun-ontzi egokituaren kabinan, ateetako gutxieneko igarotze-zabalera 0,90 m-koa izango da. Orriek, bi aldeetan, atearen zabalera osoa hartuko duen 30 cm-ko gutxieneko altuerarainoko zokalo babesle bat izango dute. Inoiz ez dira barrualdera zabalduko.

4.- Komunetan irekiera automatikoa izanez gero, abisatzeko argizko eta soinuak seinalea izango du.

5.- Seinaleztapen, kontraste kromatiko eta errotulaziorako baldintzak komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. Eranskinean deskribatutako baldintzei egokituak zaizkie.

6.- Pixatokiak instalatzen direnean, bat gutxienez zorutik 45 cm-ra ipiniko da, idulki eta irtenunerik gabe.

3.12.1.- Komun-ontzi egokituaren kabinaren ezaugarriak.

1.- Mugikortasun urria duten pertsonentzat egokitutako komun-ontziaren kabina irisgarritasunaren nazioarteko zeinuarekin seinaleztatuko da (atean ipinita).

2.- Zorutik 0,40 m-ko altueran alarma-sistema bat instalatuko da, kordoi-motakoa edo antzekoa.

3.- Kabina irekitzeko txanponak sartu behar badira, irekiera eranskin honen 4.2.2.4 puntuaren arabera arautuko da.

4.- Mugikortasun urria duten pertsonentzat egokitutako komun-ontziaren kabinak izango dituen dimentsioekin, zorutik 0,70 m-ko altueraraino 1,50 m-ko diametroko (1,80 m-koa gomendatzen da) oztoporik gabeko zirkulu bat egin ahal izango da.

5.- Kabinaren barruan konketa bat instalatuko da gutxienez, idulkirik gabe. 0,80 m-ko altueran jarriko da eta kanila automatikoa edo aginte bakarrekoa izango du.

6.- Zoladura irristakaitza izango da (lehorrean nahiz bustian). Gainera, autogarriketa-sistema instalatzean, kontuan izan beharko da instalatutako sistemak elementu desberdinen eta batez ere zoladuraren lehorketa barne hartu beharko duela. Horrela, pertsonen irristadak eta erorketak eragin ditzaketan hezetan eta ur-hondakinak desagertaraziko dira.

7.- Hustubiderik izanez gero, zoladurarekin berdinduta egongo dira eta irristakaitzak izango dira (leho-

3.12.- Aseos públicos.

1.- Cuando se instalen aseos públicos aislados en los espacios libres de edificación serán accesibles para el uso, de forma autónoma, de personas con movilidad reducida. Cuando haya agrupación de elementos, se reservará un elemento para cada sexo, por cada 10 ó fracción, debiendo cumplir las siguientes características:

2.- En los espacios destinados a la distribución de los aseos se podrá inscribir un círculo libre de obstáculos de 1,80 m. de diámetro.

3.- La anchura mínima de paso en las puertas, tanto en los espacios destinados a distribución como en la cabina de inodoro adaptado será de 0,90 m. Las hojas tendrán en ambas caras, un zócalo protector hasta una altura mínima de 30 cm., cubriendo todo el ancho de la puerta, y su apertura nunca será hacia el interior.

4.- Cuando en los aseos exista apertura automática dispondrá de señal luminosa y sonora de aviso.

5.- Se adecuarán las condiciones de iluminación, contraste cromático y rotulación a las condiciones descritas en el Anejo IV, sobre Accesibilidad en la comunicación.

6.- Cuando se instalen baterías de urinarios al menos uno se colocará a 45 cm. del suelo sin pedestales ni resaltes.

3.12.1.- Características de la cabina del inodoro adaptado.

1.- Se señalará la cabina del inodoro adaptado a personas con movilidad reducida con el signo internacional de accesibilidad colocado en la puerta.

2.- Se instalará un sistema de alarma a una altura del suelo de 0,40 m., tipo cordón o similar.

3.- Si la apertura de la cabina está condicionada a la introducción de monedas, se regulará según el punto 4.2.2.4 de este anejo.

4.- La cabina del inodoro adaptado a personas con movilidad reducida tendrá unas dimensiones tales que pueda inscribirse un círculo libre de obstáculos desde el suelo hasta 0,70 m. de altura de 1,50 m. de diámetro, recomendándose 1,80 m.

5.- En el interior de esta cabina se instalará al menos un lavabo sin pedestal colocado a una altura de 0.80 m., y con grifo de tipo monomando o automático.

6.- El pavimento será antideslizante, en seco y en mojado, además cuando se instale el sistema de auto-limpieza, deberá tenerse en cuenta que el sistema instalado incorpore el secado de los diversos elementos y sobre todo el del pavimento de manera que no permanezcan humedades o restos de agua que puedan derivar en patinazos, resbalones y caídas de las personas.

7.- Cuando existan sumideros estos estarán enrasados con el pavimento y serán antideslizantes en seco y

rrean nahiz bustian). Saretoen artekek 1 x 1 cm-ko gehieneko argi librea izango dute.

8.- Ispiluen beheko ertza 90 cm-ko altueran egongo da gehienez ere eta okerdura txiki batekin ipiniko da beheko planoak ikusi ahal izan daitezten.

9.- Komunean instalatzen diren esekitoki, toaila-euskarri, apal edo antzekoen kasuan, elementu bakoitzeko bat gutxienez 0,90 m-tik 1,20ra bitarteko altueran jarriko da.

10.- Ur beroko tutuak termikoki babestuta eta isolatuta egongo dira.

3.12.2.- Komun-ontziaren ezaugarriak eta instalazioa.

1.- 45 cm-tik 50era bitarteko altueran egongo da eta bere kanpoko ertza hormatik gutxienez 70 cm-ra geratuko da. Bere alboetako batean gutxienez 80 cm-ko espazio librea utziko da lekualdaketa egiteko eta lekualdaketa bi aldeetatik egiteko aukera izatea gomendatzen da.

2.- Komun-ontziaren jarlekua 45 cm-tik 50era bitarteko altueran instalatuko da. Transferentziak errazteko, komun-ontziaren bi aldeetan barra zurrinak ipiniko dira (bat gutxienez horma aldera eraisgarria, iristeko hurbilena hain zuzen ere). Tinko ainguratuta egongo dira 80 ± 5 cm-ko altueran eta 90-80 cm-ko luzerarekin.

3.- Barretatik komun-ontziaren ardatzera 30-35 cm-ko distantzia egongo da.

4.- Instalatzen den deskarga-sistemaren sakagailua manipulazio-arazoak eta/edo helmen-arazoak dituzten pertsonen eragiteko modukoa izango da. Plano bertikaleko palanka bidezko kanpoko sakagailuak saihestuko dira bizkarraldea babesteko sostengurik ez dagoenean. Horrela, egonkortasun-arazoak dituzten pertsonen istripuak saihestuko dira.

5.- Komun-ontzi eramangarriek edo finkoak ez direnek irisgarritasun-baldintza hauek beteko dituzte.

(ikus 14- eta 15. irudiak)

4. artikulua.- Hiri-altzariak.

4.1.- Definizioa.

Hiri-altzaritzat, kanpoko espazioetan urbanizazio-elementuei gainjarrita edo erantsita (aldatzean edo lekualdatzean funtsezko aldakuntzarik ez ekartzeko moduan) ipini beharreko objektuak hartuko dira: semaforoak, seinaleak, informazio-panelak, kartelak, telefono-kabinak, iturri publikoak, higiene-zerbitzuak, paperontziak, markesinak, eserlekuak eta beste antzeko guztiak, bai aldi baterako jartzen direnak nahiz iraunkorrak.

4.2.- Hiri-altzariak instalatzeko arauak.

4.2.1.- Arau orokorrak.

1.- Erabilera publikoko espazio libreetan aldi baterako edo iraunkortasun-izaeraz instalatzen den edozein

en mojado, las ranuras de las rejillas tendrán una luz libre máxima de 1 cm. x 1 cm.

8.- Los espejos tendrán el borde inferior a una altura no superior a 90 cm., colocándose con un ligero desplome, a fin de posibilitar la visión de los planos inferiores.

9.- Las perchas, toalleros, repisas u otros elementos análogos que se instalen en el aseo al menos uno de cada elemento se colocarán a una altura comprendida entre 0.90 y 1.20 m.

10.- Las tuberías de agua caliente estarán protegidas y aisladas térmicamente.

3.12.2.- Características del inodoro y su instalación.

1.- Estará situado a una altura comprendida entre 45 y 50 cm. y su borde exterior quedará como mínimo a 70 cm. de la pared, dejando en al menos uno de sus laterales un espacio libre de 80 cm. para la traslación, recomendándose la posibilidad de traslación por ambos lados.

2.- El asiento del inodoro se instalará a una altura comprendida entre 45 y 50 cm. Para facilitar las transferencias se dispondrán, en ambos laterales del inodoro, barras rígidas, al menos una abatible sobre la pared, la del lado de acceso, sólidamente ancladas a una altura de 805 cm, con una longitud entre 90 y 80 cm.

3.- La distancia de las barras al eje del inodoro será de 30 a 35 cm.

4.- El pulsador del sistema de descarga que se instale será accionable por personas con problemas de manipulación y/o alcance. Se evitarán pulsadores sobresalientes de palanca en el plano vertical cuando no exista apoyo dorsal que los proteja con el fin de evitar accidentes en las personas con problemas de estabilidad.

5.- Las cabinas de inodoros no fijas o transportables cumplirán estas condiciones de accesibilidad.

(ver figuras n.º 14 y 15)

Artículo 4.- Mobiliario urbano.

4.1.- Definición.

Se entiende por mobiliario urbano, el conjunto de objetos a colocar en los espacios exteriores, superpuestos o adosados a los elementos de urbanización, de modo que su modificación o traslado no genere modificaciones substanciales: semáforos, señales, paneles informativos, carteles, cabinas telefónicas, fuentes públicas, servicios higiénicos, papeleras, marquesinas, asientos y cualquier otro de análoga naturaleza, tanto los que se sitúen de forma eventual como permanente.

4.2.- Normas de instalación del mobiliario urbano.

4.2.1.- Normas generales.

1.- Cualquier elemento de mobiliario urbano que se instale de forma eventual o permanente en los espacios

hiri-altzari irisgarritasuna ez eragozteko moduan jarriko da.

2.- Instalatzen diren erabilera publikoko elementuak (hala nola telefono-kabinak edo telefono-hormak, iturriak, bankuak, kutxazainak, markesinak, mostadoreak, kanpoko erakusmahaiak, kioskoak edo antzekoak) irisgarritasun-zailtasunak dituzten pertsonen erabiltzeko moduan diseinatu eta kokatuko dira.

3.- Fatxadatik irteten diren edo oinezkoentzako ibilbide edo espazio bat oztopatzen duten elementu finko edo mugikorren (hala nola markesinak, kioskoak, olanak, seinaleak edo antzekoak) kasuan, beren beheko ertz 2,20 m-tik gorako altueran jarriko da.

4.- 2,20 m-tik beherako altueran kokatutako edozein elementu finko edo mugikor lurreraino iritsiko da oinplano-proiektzio handienarekin.

5.- Hiri-altzariak oinezkoentzako ibilbidearen luzetarako noranzkoan lerrotatuta antolatuko dira. Espaloi kasuan, kanpoko ertzean jarriko dira, inoiz ez fatxadaren ondoan eta, kasu guztietan, oinezkoentzako ibilbidearen zabalera librea 2,00 m-koa izango da gutxienez. Hektarea bakoitzeko 12 edo etxebizitza gutxiagoko dentsitatea duten urbanizazioetako espaloietan 1,50 m-koa izango da gutxienez.

6.- Ezingo dira oinezkoentzako ibian eta pasagunean kokatu, ez eta gurutzaguneetan ere oinezkoentzako ibilbideen elkarguneko azalera komun osoan. Oinezkoentzako pasaguneen alboko mugetan kokatzea gomendatzen da, helburu bikoitzarekin: alde batetik, oinezkoentzako pasagunearen zabalera eta argi librea mugatzeko eta, bestetik, pasagunea ibilgailuez babesteko.

7.- Erabilera publikoko espazio libreetan edo oinezkoentzako ibilbideen ondoan instalatutako jarduera iraunkorrek edo aldi baterakoak (hala nola kioskoak, salmenta edo erakusketarako postuek, ostalaritzako terrazek edo antzekoak) ez dute inoiz oinezkoentzako ibilbidea oztopatuko eta irisgarritasuna kontuan hartuta diseinatu beharko dira.

8.- Elementu garden guztiek bi seinalez tapen-marra horizontal izango dituzte, 20 cm-ko zabalera izango da, bata 1,50 m-ko eta bestea 0,90eko altueran jarriko (beheko ertzetik lurreraino neurtuta), ikusmen-urritasuna duten pertsonen antzeman ditzaten.

4.2.2.- Arau partikularrak.

4.2.2.1.- Semaforoak.

1.- Erregulazioa 0,70 m/seg-koa izango da gehienez ere eta denbora horren zati bat semaforo gorriari dagokion aldez aurrekoa destinatuko da gutxienez 5 segundoko iraupena izango duen aldizkakotasunaren bidez.

2.- Soinuak emititzeko sistemak izan beharko dituzte, komunikaziorako irisgarritasunari buruzko IV. Eranskinean adierazi bezala hain zuzen ere.

libres de uso público, se dispondrá de forma que no interfiera la accesibilidad.

2.- Aquellos elementos de uso público, que se instalen, como cabinas u hornacinas telefónicas, fuentes, bancos, cajeros, marquesinas, mostradores, expositores externos, kioscos de revistas u otros análogos se diseñarán y ubicarán de forma que puedan ser utilizados por personas con dificultad en la accesibilidad.

3.- Aquellos elementos fijos o móviles salientes de fachada o que interfieran un itinerario o espacio peatonal tales como, marquesinas, quioscos, toldos, señales u otros análogos, se instalarán de forma que su borde inferior supere la altura de 2,20 m.

4.- Cualquier elemento fijo o móvil situado a una altura inferior a 2,20 m. se prolongará hasta el suelo con toda la mayor proyección en planta.

5.- El mobiliario urbano se dispondrá o colocará alineado en el sentido longitudinal del itinerario peatonal. En caso de aceras, en el borde exterior, nunca junto a la fachada y en todos los casos sin reducir la anchura libre del itinerario peatonal a menos de 2,00 m. y no menos de 1,50 m. en las aceras de urbanizaciones de densidad igual o inferior a 12 viviendas/hectárea.

6.- No se situarán invadiendo el vado y el paso de peatones, ni en los cruces de calle en toda la superficie común a la intersección de itinerarios peatonales, recomendándose situarlos en los límites laterales de los pasos peatonales con una doble finalidad, por un lado que delimiten la anchura y luz libre del paso peatonal y por otro que sirvan de protección contra la invasión del mismo por vehículos.

7.- Las actividades eventuales o permanentes instaladas en los espacios libres de uso público o junto a los itinerarios peatonales, tales como kioscos, puestos de venta o exposición, terrazas en hostelería, u otros similares no interferirán nunca el itinerario peatonal y deberán de ser diseñadas teniendo en cuenta su accesibilidad.

8.- Todo elemento transparente, dispondrá de dos bandas señalizadoras horizontales de una anchura de 20 cm. colocadas a una altura de 1,50 m. y 0,90 m. medido desde su borde inferior hasta el suelo, para hacerlo perceptible a las personas con deficiencias visuales.

4.2.2.- Normas particulares.

4.2.2.1.- Semaforos

1.- La regulación deberá ser como máximo 0,70 m/seg., destinando parte de este tiempo al previo del semaforo en rojo mediante intermitencia con al menos 5 segundos de duración.

2.- Deberán disponer de sistemas de emisión de sonidos de la forma que se define en el Anejo IV, sobre Accesibilidad en la Comunicación.

3.- Eskuzko semaforoetan, argiaren aldaketa eragiteko sakagailua 0,90 m-tik 1,20ra bitarteko altueran kokatuko da.

(ikus 16. irudia)

4.2.2.2.- Telefonoak.

1.- Isolatuta instalatzen diren erabilera publikoko telefonoak mugikortasun urria duten pertsonen erabiltzeko modukoak izango dira. Elementu-talde bat izanez gero, 10 telefono-aparatuko edo zatikiko bat erreserbatuko da.

2.- Telefono-kabinek eta solastegiek, eraikuntzarako definitutako irisgarritasun-parametroak beteko dituzte.

3.- Solastegiak instalatzen direnean, mugikortasun urria duten pertsonentzat erreserbatutako aparatuez gain komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonentzat egokitutako telefono-aparatu bat erreserbatuko da 10 aparatuko edo zatikiko.

4.- Telefonoaren kokapena eta ezaugarri teknikoak eta elkarreraginekoak IV. eranskinean ezarritakoari egokitu zaizkio.

4.2.2.3.- Mugikortasun urria duten pertsonen erabiltzeko moduko telefonoa.

1.- Mugikortasun urria duten pertsonen erabilera destinatutako erabilera publikoko telefonoetan, aparatuek, dialak, diru-kaxak eta txartel-kaxak 0,90 m-ko altueran instalatuko dira.

2.- Dialak teklatu bidezkoak eta manipulatzeko arazoak dituzten pertsonentzat erabiltterazak izango dira eta zenbakiak, tamainari eta kontrasteari dagokionez, ondo ikusteko modukoak izango dituzte.

3.- Pertsonen eta tresnen sostengurako apal bat ipiniko da 0,80 m-ko altueran eta azpian 0,70 m-ko espazio librea utziko da.

4.- Telefono hauek erraz aurkitzeko eta hurbiltzeko moduko espazioetan instalatuko dira eta oztoporik gabeko 1,80 m-ko biraketa-diametroa ahalbidetu behar da telefonoa erabiliko deneko aldearen aurrean.

5.- Telefono-multzoen kasuan, gutxienez lehenaren eta azkenaren alboko aldeak lurreraino luzatu behar dira.

(ikus 17. irudia)

4.2.2.4.- Makina saltzaileak.

1.- Erabilera-argibideak dituzten makina saltzaileak, braille sistema, altuerliebea eta makrokaraktereak izango dituzte ikusmen-arazoak dituzten pertsonen autonomiaz erabili ahal izateko (aparkaleku-tiketak saltzen dituzten makinaren kasuan izan ezik). Makina horiek soinu-zuko informaziorako gailu bat izatea gomen datzen da.

2.- Dialak eta diru-kaxak 90 cm-ko altueran kokatuko dira.

3.- El pulsador para accionar el cambio de luz en los semáforos manuales se situará a una altura de 0,90 a 1,20 m.

(ver figura n.º 16)

4.2.2.2.- Teléfonos.

1.- Los teléfonos de uso público que se instalen aislados serán accesibles para el uso de personas con movilidad reducida. Cuando haya agrupación de elementos, se reservará un aparato de teléfono por cada 10 ó fracción.

2.- Las cabinas telefónicas y locutorios, cumplirán los parámetros de accesibilidad definidos para la edificación.

3.- Cuando se instalen locutorios además de los aparatos reservados para personas con movilidad reducida se reservará un aparato de teléfono adaptado para personas con dificultades en la comunicación por cada 10 o fracción.

